

Munduko III. Rugby Txapelketa

Hego Afrika finalera

Lehen finalerdian Hego Afrikak 19-15 irabazi zion Frantziari eta finala jokatu du

19 HEGO AFRIKA

Du Randt-Rossouw-Swart, Wiese-Strydom, Piennar-Andrews-Kruger, Van der Westhuizen-Strasny, Williams-Le Roux-Mulder-Small, Joubert. Aldaketa: 52. minutuan Roux Westhuizénen ordez.

15 FRANTZIA

Armary-Gonzalez-Califano, Merie-Roumat, Benazzi-Cecillon-Cabannes, Galthie-Deylaud, Saint Andre-Lacroix-Sella-Ntamack, Sadourny.

● **Puntuak:** 3-0 Strasnyk zigor kolpea (2. min.), 8-0 Krugerrek entseia (26. min.), 10-0 Stranskren transformaketa. 10-3 Lacroixek zigor kolpea (35. min.). 10-6 Lacroixek zigor kolpea (39. min.). 13-6 Strasnyk zigor kolpea (43. min.). 13-9 Lacroixek zigor kolpea (44. min.). 16-9 Strasnyk zigor kolpea (47. min.). 16-12 Lacroixek zigor kolpea (58. min.). 19-12. Strasnyk zigor kolpea (70. min.). 19-15 Lacroixek zigor kolpea (76. min.).



Parte hartu duen lehen Mundialean finala jokatu du Hego Afrikak.

zuloa bilatuz, baloia ondo gorde zuten maularen bidez eta bultzako entseiu lerroraino iritsi ziren. Krugerrek selekzioarekin jokatzeko zortzigarren partidua izan zen atzokoa.

Durbango King's Park zelaian 52.000 ikusle sar badaitezke, atzo 60.000 izan ziren partidu historikoa jarraitu ahal izateko. Egun osoan zehar botatuko euri zaparradek ur putzu galanta eragin zuten eta ondorioz ordu t'erdia beranduago hasi zen norgehiagoka. Lehen zatian gehiago do-

minatu zuten etxeok, aurreneko ordu erdian batez ere. Hego Afrikako aurrelariak indartsu eta sendo ari ziren jokatzeko, alboko sakeetan erraz nagusituz. Gure ustez, Westhuizen mele erdia izan zen onena, 52. minutuan lesionatu zen arte. Primeran gidatu zuen aurrekoen jokoa eskuz zein ostikoz. Zelaia irristakorra egoteak eragotzi egiten zuten eskuzko jokoa eta horregatik aurrekoen bidez jokatzeko zen onena.

Zati hau amaitzeko 10 minutu

falta zirela hasi ziren argiago dominatzen frantziarrak eta horri esker, ohi bezalako zorrotasuna erakutsiz, Lacroix Akizekoak 6 puntu lortu zituen hagetarako jaurtiketetan. Atseldenaldian, beraz, 10-6 erakusten zuen markagailuak.

Bigarren zatia orekatuagoa izan zen, eta bakoitzak bere boladak izan zituen. Frantziak, hala ere, entseia merezi zuten bizpahiru jokaldi egin zituen. Horrela, eta minutuak aurrera egin ahala, Strasnyk eta Lacroixen buruz buruko norgehiagoka izan zen ostikoz puntuak lortzeko. Lacroixek 19-15eko markagailua ezarri zuen 78. minutuan. Frantzia eten gabeko erasoan ari zen garaipena lortu nahian baina afrikarren nagusitu zen. Oilarrekoen aukera garbiena bi minuturen faltan heldu zen. Deylaudek goranzko ostikoa jo zuen eta Benazzi ez zen entseia egitera iritsi zentimetro gutxigatik.

Hegoafrikarren ametsa bete da eta jadanik larunbatean jokatu du finalerako txartela eskuratu dute. Strasnyk 14 puntu egin zituen. Frantziako puntu guztiak Lacroixek egin zituen. Frantziari kalte egin zion zelaiaren egoerak, eskuko jokoa egiten baitu.

Final aurreratua

Zeelanda Berrikoek bizitasuna eta mugikortasuna dute ardatz nagusi. Ingelesak, aldiz, borroka dute gustoko aurrean batez ere. *All Blacks*-ek ikusgarritasuna eskaini du. Arrosakoak, berriz, joko praktikoa eta sinplea erabili du orain arte.

Beltzek lehen txapela jantzi zuten 1987an Frantziari irabaziz. Bigarren Mundialean behar bada izan zuten Australia txapel-dunak kanporatu zituelarik finalerdian. Ingalaterraren jarduna alderantzizkoa izan da. Bigarren Mundialean finala jokatu zuen Australiaren aurka, 12-6 galduz. Aurtengoari dagokionez, biek irabazi dituzte jokatuak lau partiduak, aurkari indartsuagoak izan duelarik Ingalaterrak.

Bi taldeen jardunak jarraitu duenak erraz antzeman dezake zer-nolako jokoa egingo duten gaur. Ingelesak aurreko jokoa oinarrituko dira. Ahalik eta baloi gehien irabazi alboko sakeetan, batez beste 1,99ko garaiera duten bigarren eta hirugarren lerroko bostekoarekin. Gogoratu behar da Bayfield eta Johnson, bigarren lerroko bikoteko kideek 2.08 eta 2.00 metro dituztela. Baloia bereganatu ondoren, saiaturko dira metro gutxiko esparruan jokatzeko. Maul sarkorrak, torlo-

juak, birsarketak indartsuak eta mele irekiak egiten. Hori bai, ahalik eta gutxien eroriz lurrera eta baloia denbora luzean edukiz.

Joko hori egiteko adina sendotasuna badute arrosakoek. Aurrelari bakoitzaren batez besteko pisua 106,3 kilokoa da, zortzikotearena 891 kilokoa, zeelandarrek baina 37 gehiago. Hauen batez besteko pisua 101,75 kilokoa da. Esperientzia ere aldeko dute ingeles aurrelariak, 28,1 urteko adina daukate batez beste, Moore horpokatzaila delarik helduena 33 urterekin. Zeelandarrek, aldiz, 27,7koa dute, eta Fitzpatrick kapitaina da helduena.

Ingalaterrako Morris erdiak berak ere gustokoa du aurrekoekin jokatzeko eta gaur ere behin eta berriro saiatuko da sartzen. Zer esanik ez Carling kapitaina, lehen zatian behinik behin, jokalari gehienetan aurrelarien laguntza bilatuko du. Rob Andrewren esku egongo da ostikozkoak zuzentasunez bidaltzea.

Zeelandarrei guztiz kontrakoa egitea egokituko zaie. Aurrelariak arinago eta dinamikoago aritu dira orain arte. Alboko sakeetarako Jones bigarren lerroa dute gainera 1,98rekin eta batez beste 1,95eko altuera, arrosa-

koek baino baxuagoa. Fitzpatrick kapitainak gidatuko ditu, 31 urterekin. Atzeko lerroak min handia egin dezake. Bunce eta Little erdiko bikote indartsu, azkar eta plakatzailearen ondoan, lau gazte ariko dira. Guztien batez besteko adina 25,3 urtekoa da. Mehrtens joko zabaltzaileak maisuki gidatzen du hiru laurdenetako jokoa. Lomu hegalarren jokoak eraginik izango du. Jakitun dira arrosakoak 20 urteko gaztearen indarraz eta estu zainduko dute.

Ingelesak 1994an irabazi egin zieten hegoafrikarrei 9-27 Hego Afrikan. Aurtengo V Nazioetako torneo erraz irabazi dute. Zeelanda Berriak hiru partidu irabazi zizkion Hego Afrikari etxean, Australiaren aurka galdu Sidneyn eta emaitza txarrenak Frantziaren aurka izan zituen, bi partidu galdu baitzituen 1994an.

LABURREAN

OLANO atzo goizaldean operatu zuten

Abraham Olanok ospitalean jarraitzen du, ostiral arratsaldean Kataluniako Voltan izandako erorketaren ondoren. Eskuin klabikula hautsita dauka eta atzo goizaldean egin zioten apurketa hori konpontzeko ebakuntza. Ezkerreko eskuan atzamarra hautsia dauka eta, horrezaz gain, kolpeak aurpegian eta kopetan ●

BERASATEGIK

Oporto torneoko finala jokatu du

Alberto Berasategik denboraldiko lehen finala jokatu du gaur Oporton. Lurreko pistetan jokatzeko den torneo honetako finalerdian Francisco Clavet espainiarra kanporatu zuen atzo bizkaitarrak. Bi setetan irabazi zuen partidua, 6-4 eta 6-4. Denboraldi hasiera ona izan ez badu ere, Berasategi sasoi onean jartzen ari dela dirudi ●

CIPOLLINI irabazle Voltan eta Ekimov Suitzako Itzulian

Mario Cipollinik esprintean irabazi zuen atzo Kataluniako Voltako bigarren etapa. Martinelli eta Jalabert sailkatu ziren atzetik. Jalabertek jarraitzen du lidergoan. Suitzako Itzulian, berriz, Ekimov errusiarrak irabazi zuen atzoko etapa, bosgarrena. Zullek jarraitzen du itzuliko lidergoan ●

GREG NORMAN

EEBBetako golf irekiko buruan

Ostiralean jokatuak bigarren jardunaldia amaitu ondoren, Greg Norman da EEBBetako irekiko liderra. Normanek 135 kolpe egin ditu bi ibilbidetan. Bigarren Jumbo Ozaki japoniarra da, bi kolpera. Olazabal sailkapeneko 31. postuan dago 143 kolperekina ●

15.00 - C+ (Fr) - Eurosport

ZEELANDA BERRIA	INGALATERRA
Laurie Maws	Jack Rowell
1 Dowd	1 Leonard
2 Fitzpatrick (kap.)	2 Moore
3 Brown	3 Ubogu
4 Jones	4 Johnson
5 R. Brooke	5 Bayfield
6 Brewer	6 Rodber
7 Kronfeld	7 Clarke
8 Z. Brooke	8 Richards
9 Bachop	9 Morris
10 Mehrtens	10 Andrew
11 Lomu	11 R. Underwood
12 Little	12 Guscott
13 Bunce	13 Carling (kap.)
14 Wilson	14 T. Underwood
15 Osborne	15 Catt

Zelaia: Kap (Newlands)

K.A. / DONOSTIA

Txapelketan zehar hiru neurketa izan zitezkeen Mundialeko finalak, hasierako Hego Afrika-Australia, Australia-Ingalaterra eta gaurko Zeelanda Berria-Ingalaterra hau. Bi joko guztiz ezberdinak lehiatuko dira.



UNIVERSIDAD PUBLICA DE NAVARRA
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN HAUTESPEN-PROBETARAKO DEIALDIA
Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasgelen eraikineko iragarki oholean jarrita daude zerrendak, plika ordenaren arabera; horietan oposizio-laseko lehen ariketako bi zatiak egin zituzten oposizioleek lortutako puntuazioak agertzen dira. Plikak jendaurrean irekitzeko ekitaldia ekainaren 19ko 9.30etan egingo da, Unibertsitate honetako ikasgelen eraikineko 07 Gelan.
EPAIMAHAI BURUA

Iruñea, 1995eko ekainak 16